



ATXONDOKO UDALA

ALKATETZA-DEKRETUA

Urtero abenduko lehenengo igandean Atxondon egiten den azoka arautzeko asmoz dekretu hau sinatzen du Atxondoko Udaleko alkate-presidenteak, azokan produktuak saldu eta erakutsi nahi dituzten guztiek bete beharreko baldintzak eta lehenetasun-irizpideak ahal den neurrian zehaztuta.

Jakinik gurea herri (eta azoka) txikia dela eta azokak ikusle/erosle kopuru handirik ez duela erakartzen, normalean ez da arazorik egoten bertan produktuak erakutsi eta saldu nahi duten guztiek edo, behintzat, gehienek lekua izan dezaten. Hala ere, baliteke inoiz norbaitentzako leku faltan egotea eta, ondorioz, egoki ikusten da aurretik lehenetasun eta irizpideok finkatzea, gerora eztabaida eta arazorik ez izateko.

Aurreko guztiaren ondorioz, ondorengo puntuetan ahal bezain argi azalduko dugu zer den eta zer ez den Atxondoko abenduko azoka eta zer edo nori emango zaion lehenetasuna. Horrela ba,

DECRETO DE ALCALDIA

Con el objetivo de regular la feria agrícola y de artesanía que se celebra en Atxondo el primer domingo de diciembre, el Alcalde-presidente del Ayuntamiento de Atxondo firma este Decreto, que pretende establecer, en la medida de lo posible, las condiciones para la venta y exposición de productos; así como los criterios de prioridad aplicables.

Teniendo en cuenta las dimensiones del pueblo y de la feria, normalmente no surgen problemas de espacio; y la mayoría de los productores tiene sitio para exponer y vender sus productos. No obstante, puede resultar que alguien no pueda acceder por falta de espacio, y por esa razón es necesario fijar previamente los criterios de prioridad que se vayan a aplicar, para evitar disputas y problemas.

Por lo expuesto, en los siguientes puntos se pretenden describir las características de la feria que se celebra en diciembre y los productores y productos que



ATXONDOKO UDALA

tendrán prioridad en ella. En consecuencia

ERABAKI DUT

LEHENENGO.- Gure azokaren ezaugarri nagusia da artisau eta baserriko produktuen azoka dela, eta ez ganadu edo abere azoka. Horrela ba, ezin izango da animaliarik erakutsi ezta saldu ere. Era berean, azokako eremuan egongo diren erakusmahaietan ezin izango da jatekorik sukaldatu. Horretarako aukera bakarra Atxondoko Udalak eta beronen agindupean dihardutenek bakarrik izango dute, erakusmahaien eremutik at beti ere.

BIGARREN.- Aipatu bezala, beraz, atal nagusi bi ditu gure azokak: bata, artisautzari begira; eta bestea, baserriko produktuei dagokiona. Gutxi gora behera saltzaileen erdia arlo bakoitzekoa izan beharko da eta, ondorioz, Udalaren esku egongo da lehentasuna saltzaile bati edo besteari ematea, oreka hori lortu ahal izateko.

HIRUGARREN.- Oreka mantentzeko ahalegina ere egingo du Udalak arlo bietako bakoitzean. Hau da, baserriko produktuen artean barietatea bermatzeko ahalegina egingo da eta baita ere artisauen atalean. Helburua izango litzateke, ulertuko den moduan, esate baterako, ez egotea lau gazta-ekoizle eta ezti edo barazki ekoizlerik bat bera ere ez. Horrela, baldin eta produktu bera

HE DISPUESTO

PRIMERO.- La característica principal de la feria es que se trata de una feria de artesanía y de productos del caserío, y no de una feria de ganado y animales. Por lo tanto, no se podrán exponer ni vender animales. Igualmente, no se permite cocinar alimentos en los puestos de la feria. Dicha actividad estará reservada para el Ayuntamiento de Atxondo y quienes trabajen a su servicio, y siempre fuera de la zona de expositores.

SEGUNDO.- Según lo expuesto, la feria tiene dos apartados: por un lado, el relacionado con la artesanía; y por otro, el de los productos de caserío. Aproximadamente la mitad de los productos deberá corresponder a cada sección. Consecuentemente, y para garantizar un equilibrio entre las dos secciones, el Ayuntamiento podrá decidir a qué vendedor/productor dar prioridad.

TERCERO.- Asimismo, dentro de cada sección de la feria se procurará mantener un equilibrio, garantizando una variedad de productos tanto artesanales como de caserío. El objetivo, por lo tanto, es que no haya varios vendedores con un mismo producto y falten otros productos. Si hubiera demasiados productores que ofrecen un mismo producto, el



ATXONDOKO UDALA

eskaintzen duten ekoizle larregi balego, udalaren esku egongo da lehentasuna ematea bati edo besteari.

LAUGARREN.- Azokaren beste ezaugarrietako bat da bertako produktuei eman nahi zaiela lehentasuna, bertan bertakoa ekoitzi eta kontsumitzeak dakartzan onurak azpimarratu eta sustatu guran. Horrela ba, baldin eta gauza bera saldu nahian datozen ekoizle bi edo gehiago baleude, hurbilekoenak izango dau lehentasuna, herri-eskualde-herrialde logikari jarraituaz.

BOSTGARREN.- Era berean, ekoizle gazteei ere eman nahi zaie lehentasuna, gaur egun merkatu berri bat egiteak zelako zailtasunak dakartzan jakinik. Horrela ba, goian azaldutako logikari jarraituta, produktu jakin bat saldu guran bi edo gehiago badira aurkeztutako ekoizleak, hurbilekoa izateaz gainera gaztea izateak ere lehentasunerako eskubidea emango du.

SEIGARREN.- Gauza bera esan dezakegu, jateko produktuetan behintzat, ekoizpen ekologikoa egiten duten produktoreei dagokionez, lehentasuna izango dutenak azokan.

ZAZPIGARREN.- Esan beharrik ez dago, bestalde, azokan salgaiak (jatekoak edo ez) dituzten guztiek bere gain hartu behar dutela diharduten sektorean bete beharreko segurtasun eta osasun arau guztiak betetzeko ardura, honekin batera doan eskabide orria bete eta sinatuta.

Ayuntamiento establecerá el orden de prioridad.

CUARTO.- Otra de las características de la feria es el interés por dar preferencia a los productos locales, impulsando y destacando los beneficios de producir y consumir productos locales. Siguiendo este criterio, si hubiera más de un vendedor con un mismo producto, se priorizará la proximidad siguiendo la siguiente lógica: municipio, comarca y provincia.

QUINTO.- Se dará preferencia a los jóvenes productores, debido a la dificultad que supone acceder al mercado en la actualidad. Por esta razón, siguiendo con la lógica señalada, si para la venta de un mismo producto se presentase más de una solicitud, además del criterio de proximidad también se tendrá en cuenta la juventud del productor en el momento de establecer prioridades.

SEXTO.- También se priorizará la producción ecológica, en lo que respecta a productos alimenticios, y por lo tanto, los productores ecológicos tendrán preferencia en la feria.

SEPTIMO: Señalar que todas las personas que vayan a vender sus productos deberán responsabilizarse de cumplir todas las medidas sanitarias y de seguridad vigentes en el sector al que pertenezcan, cumplimentando y firmando para ello la declaración en la solicitud que se adjunta.



ATXONDOKO UDALA

ZORTZIGARREN.- Azkenik, baldin eta aipatutako irizpide eta arauak beteta ere, zalantza edo arazorik balego azokara nor etorri daitekeen erabakitzeke eta bakoitza zein lekutan egon beharko den zehazteko, antolatzaileak izango du azkeneko berba, segurtasun, osasun eta antolakuntza arloko irizpide eta inguruabar guztiak aintzakotzat hartuta.

Era berean, azoka egunean ikusiko balitz aurretik jarritako baldintzak betetzen ez dituen saltzailerik dagoela edota Udaleko arduradunek emandako jarraibideei kasurik egiten ez bazaie, azoka uzteko agindua eman ahal izango zaio eta, aurrerantzean, bertara berriz etortzea debekatzeko aukera izango du Udalak.

Atxondon, 2016ko urriaren 10ean.

OCTAVO: Añadir que a pesar de cumplir las condiciones mencionadas anteriormente, surgiera alguna duda o problema sobre quién debe acudir a la feria o el lugar que debería ocupar, la organización será la encargada de decidir; basándose en criterios de seguridad, sanidad y de organización establecidos, así como demás circunstancias.

Del mismo modo, si el día de la feria se comprueba que algún vendedor no cumple las condiciones fijadas o no sigue las instrucciones de los responsables municipales, se le podrá requerir que abandone la feria, así como prohibir que vuelva a participar en ediciones posteriores.

Atxondo a 10 de octubre de 2016.



Tel. 946 821 001

Fax 946 583 286

www.atxondo.net

info@atxondo.net

ATXONDOKO UDALA

**ATXONDOKO AZOKAN
SALTZAILE MODUAN PARTE
HARTU AHAL IZATEKO IZEN
EMATE ORRIA**

HOJA DE INSCRIPCIÓN PARA
PARTICIPAR EN LA FERIA DE
ATXONDO

Izen-abizenak:

Nombre y apellidos:

Enpresa edo alkartearen izena:

Empresa o asociación:

Helbidea:

Dirección:

Herria:

Municipio:

Telefono zenbakia:

Número de teléfono:

Erakusgai edo salgaia(k):

Productos expuestos o en venta:

Izena ematerakoan
sinatzaileak adierazten du bere
salgaiak merkaturatzeko bete
beharreko osasun, garbitasun eta
segurtasun baldintzak betetzen
dituela.

El vendedor al inscribirse en
la feria, manifiesta que cumple todas
las normas sanitarias, higiénicas y
de seguridad requeribles.

Sinadura:

Firma: